

# SUHAN

## 1. Balio proposamena

Proiektu hau, labur esanda, ikasgelan eroso egoteko sortu dugu. Guk momentu honetan ikasle moduan gaudenez, pentsatu dugu bizkarraldetik mahai bihurtzen den aulki bat sortzea. Gure aulkiak, informatika klaseetan, irakasleak arbelatik kopiatzeko agindua ematen duen bakoitzean eroso egoteko asmatu dugu. Gure proiektuaren balioa kualitatiboa izango da, gure bezeroek prezioa alde batera utzita, produktua aukeratuko dute, beraien ikasleak klasean eroso egoteko eta arazoak ez izateko. Hona emen gure produktua beste produktu batzuetatik bereizteko arrazoiak:

1. **Nobedadea:** Eskainiko dugun produktua, nobedade bat izango da irakaskuntza munduan, Bizkaian ez dagoelako enpresa bat ere ez, mota honetako aulkiak saltzen dituztenak.
2. **Lana erraztea:** Gure aulkia lana errazteko balio du, ez zara hainbeste mugitu behar eta horrek, osasunerako hobea da, hain zuzen ere, bizkarrerako. Oso erabilera errazeko aulkia da.
3. **Prezioa:** Gure produktuaren prezioa, ez da garestia izango, low cost-eko aulkia izango da, horrek gure bezeroengan abantaila bat izango da, produktu berria, eksklusiboa eta prezio baxuan.